

**MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKASTURTEAREN HASIERA  
APERTURA CURSO MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

2024-09-18 Arrasate 18-09-2024

**Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari**

Eusko Legebiltzarreko presidentea, Sailburua, Alkateok, Herri agintari eta ordezkariok, Mondragon Unibertsitateko errektorea, irakasle eta ikasleok, jaun-andreok, egun on!

Gaur emango diogu hasiera 2024-2025 ikasturteari. Eta lehenbiziko egun hauek beti izaten dira aproposak helburuak markatzeko. Nora joan nahi dugun definitzeko.

Guk gure helburua argi dugu. Lehen egunetik definitu egin genuen: Euskadirentzako ahalik eta unibertsitate eta zientzia sistema aurreratuena izatea. Gure herrirako estrategikoak eta onuragarriak izan daitezkeen eremu eta esparruetan nazioarte mailan erreferente izatea.

Zergatik? Hezkuntzak, maila guztietan, pertsonari aukerak irekitzen dizkiolako. Begirada zabaltzen, adimena kultibatzen eta lanerako aukerak ugaritzen dizkigulako.

Laburbilduz, hezkuntzak, belaunaldiz belaunaldi, familiek hobera egiteko modurik ziurrena dela erakutsi duelako.

Europar eta mundu mailan trantsizio batean gaude. Une berezi, ezegonkor eta zail batean. Baina aukerez betetako bidegurutzea ere badela uste dugu.

Unibertsitateak erakunde garrantzitsuenetako bat izan beharko luke euskal gizarteak trantsizio hau modu egokian, itxaropentsuan eta bidezkoan egin dezan.

Zalantzarik gabe, goi-mailako hezkuntzak gure geroaren jabe izaten lagunduko digu. Abangoardian kokatu behar dugu. Konplexurik gabe. Gure buruan sinetsiz.

Anbizioaren eta autoexigentziaren ikurrina eskutan hartuta, apaltasunez eta gure tamainaren jabe izanik, baina onenen pare egoteko ametsarekin beti.

Jakin badakigu hori lortzea posible dela. Baldintza eta baliabide egokiak baditugu.

Arnasa hartu, autoestimua indartu eta aurrerapausoa ematea besterik ez zaigu geratzen, lan eta lan eginez, beti bezala.

Abangoardiazkoa izango den Euskal Unibertsitate Sistema hau osatzeko guztion beharra izango dugu. Ezingo dugu bakarrik egin. Elkarlana giltzarria izango da.

Ez dut honekin erantzukizunik kendu nahi. Ezta gutxiago ere. Gobernuak gorritz markatu duela helburu hau. Berea, nirea, egiten dudala helburu hau.

Mezu honen bitartez partaide egin nahi zaituztet, bidelagun.

Denok bat izango gara edo ez gara izango. Bata bestearen aldean jarriko gara edo ez dugu lortuko. Uneak hori eskatzen digu, eta gure neurriaren jabe izateak ere bai.

Helmuga bera markatuta, bidea nola egin nahi dugun definitu behar dugu eta euskal kooperatibismoarena baino adibide hoberik ez zait bururatzen gaurkoan: indarrak batu amankomunean ditugun helburuak lortzeko, unean uneko erronkei aurre eginez, eta beti justizia soziala eta pertsona erdigunean jarrita.

Talde-lana, indartsuagoak eta bidezkoagoak izateko.

Espiritu, bisio eta eredu horri jarraituz, eta gure errealtatea kontutan hartuta, euskal unibertsitate eta zientzia sistema munduko aurreratuenen artean kokatu nahi dugu. Eta seguru naiz lortuko dugula.

El cooperativismo es seña de nuestra identidad. Forma parte de nuestro ADN. Representa una manera de encarar los retos que nos ayuda a conseguir nuestros objetivos a través del trabajo en equipo.

Unidas y unidos somos más fuertes. Si todas y todos compartimos un mismo propósito, debemos luchar juntas y juntos por él. Somos demasiado pequeños en el mundo en tamaño como para trabajar de otra manera. La suma de individualidades no bastará. No nos bastará.

Creo que esta manera de ver la vida puede ser la mejor referencia para cumplir el objetivo: lograr que el sistema universitario y científico vasco encuentre su espacio entre la vanguardia europea. Entiendo esta tarea como una obra colectiva que nos atañe a todas y todos.

Una vez más, el espíritu del movimiento cooperativo vasco, nacido aquí, en Arrasate-Mondragón, en pleno franquismo y de la mano de Arizmendiarieta, nos muestra el camino.

La universidad crea conocimiento avanzado. Pero para que ese conocimiento pueda florecer, se necesita un elemento indispensable: tener libertad para dudar. Libertad para preguntarse. Libertad para saber más y libertad para errar.

Debemos compaginar ciencia básica y ciencia aplicada. Aquella que tiene como objetivo la acumulación de saberes y la que estudia la realidad con el propósito de resolver problemas o satisfacer necesidades concretas.

Debemos destinar todos los medios a nuestro alcance para que ambas logren sus objetivos porque al final seremos todas y todos los beneficiarios de esa transferencia de conocimiento.

Una sociedad que invierte en ciencia está invirtiendo en sí misma. En ser mejor y más libre cada día. Invertir en ciencia y conocimiento avanzado significa invertir en salud, educación, cultura o actividad industrial, y en tantas cosas. En definitiva, invertir en progreso, bienestar y calidad de vida.

La universidad debe también trabajar y difundir una serie de actitudes, valores y competencias.

Debe enseñar a las personas a asumir responsabilidades, a ser dueños de sí mismos, a fomentar el espíritu de acción, a sentirse parte de la sociedad, a situarse en el mundo, a ejercitarse junto a los demás, a cooperar entre diferentes, a socializar iniciativas valientes, o a despertar la curiosidad por el saber.

La universidad debe ser más universidad que nunca, y en Mondragón Unibertsitatea contáis con un elemento muy característico que os hace singulares, diferentes: vuestra capacidad endógena para leer y anticipar en cada momento histórico aquellos nuevos perfiles que demanda el tejido industrial y económico. Capacidad de colaboración con el mundo empresarial.

Y esto es hoy más importante que nunca, porque observamos una importante falta de profesionales a muchos niveles. No es algo exclusivo de Euskadi. Tampoco es responsabilidad exclusiva de unos o de otros. Al contrario. Es un objetivo estratégico de País. Nos interpela de manera directa a todas y todos.

Necesitamos personas que adquieran competencias, diferentes habilidades y conocimientos. Y los necesitamos para ser más competitivos.

En este sentido, hoy quiero poner en valor la capacidad de Mondragón Unibertsitatea para saber identificar estas necesidades y darles una respuesta satisfactoria, con rapidez y flexibilidad.

Lo hacéis escuchando. Hablando. Trabajando codo con codo con el tejido industrial. Porque sí, la educación y el conocimiento avanzado mejoran también nuestra economía. Lo hacen incorporando innovaciones y avances a los empleos, dando oportunidades a las empresas para abrirse a nuevos mercados, preparándonos y formándonos para responder a los retos y transformaciones a los que cada día tenemos que hacer frente.

Unibertsitateak enpresatik, gizartetik, erakundeetatik gertu egon behar du. Beharrak eta erronkak ulertu eta, noski, aterabidean bidelagun izan.

Unibertsitatea, enpresa eta gizarteko beste erakundeen arteko kooperazioa ezinbesteko faktorea da ikerketa, transferentzia eta aholkularitza bezalako arloetan. Izan ere, azken finean, lankidetzaren honek pertsonen bizi-kalitatea hobetzea ekarriko du eta.

Izpiritu honetan sakondu behar dugu. Lankidetzarako kultura landuz, zabalduz eta hedatuz. Guretik munduari irekita pentsatuz, sentituz eta jokatzuz.

Eta pertsona guztiei erantzukizunetik eta kooperaziotik lan egiteko aukerak eta baliabideak eskainiz. Hori bai, pertsonaren duintasuna eta herri garapena erdigunean jarrita.

Hori da Arizmendiarririetan eta gure aurreko belaunaldien ondarea, eta legatu, hori da gure ondorengoei eskaini ahal diegun onena.

Besterik gabe, hasiera ematen diot 2024-2025 Mondragón Unibertsitateko ikasturte berriari!